

ERABAKIA, 2018ko URTARRILAREN 8koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZARAKO F1230 IKERKETAREN GESTIOKO TEKNIKARIA LANPOSTUA ZERBITZU BETEKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA BERTAN BEHERA UZTEN DELA IRAGARTZEKO DENA.

EGITEZKO AURREKARIAK

Erabaki honen eranskinean aipatutako ezaugarriak dauzkan lanpostua zerbitzu betekizunaren bidez betetzeko deialdia, Gerentearen 2018ko urtarrilaren 4ko Erabakiaren bidez iragarri zen.

Lanpostu hori 2014ko uztailaren 1eko erabakian aurreikusitako egoeretan ez dagoenez, ez zatekeen deialdiaren helburuko izan eta, horregatik, ezabatu egingo da.

ZUZENBIDEKO OINARRIA

Lehenengoa.-Kasu honetan honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuaren 39/2015 Legea (urriaren 1ekoa), Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65.2. artikulua (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionario Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez (2014ko abuztuko 27ko EHAAn); gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

Bigarrena.- Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko den 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiarekin bat etorritik (2017ko otsailaren 3ko EHAAn)

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERABAKI DUT

Bakarra.- Erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostua aldi baterako zerbitzu-betekizunetan betetzeko deialdia (2018ko urtarrilaren 4ko Erabakia) bertan behera uztea, eta honezkero, hautaketa-prozesua amaitutzat jotzen da.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2018ko urtarrilaren 8an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia
(2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA

Izena: Ikerketaren gestioko teknikaria

Erref.: F 1230

Lanaldia: Arautua

Zenbatgarrena: 39

Taldea: A

Eskala edo kidegoa: Gestio Teknikaria

Maila: 23

Hizkuntza eskakizuna: 3 derrigortasun-data: 2015/06/30

Langunea: IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Campus: BIZKAIA